

## Hezkuntza aldatzeko momentua?



Unai Etxebarria eta Ikerne Elezcano

# Aurkibidea

<b>Aurkibidea</b>	2
<b>Sarrera</b>	3
<b>Marko teorikoa</b>	4
<b>Esperimentazioa</b>	6
<b>Emaitzak</b>	7
<b>Ondorioak</b>	10
<b>Webgrafia</b>	11

## Sarrera

Hezkuntza denboran zehar aldatu da, onerako edo txarrerako, baina aldatu egin da, fase ezberdinetatik igaroz, helburu ezberdinak lortzeko. Hezkuntza mota gobernuak ezartzen du, eta batzuetan ez da ahal bezain ona. Hori dela eta, ikerketa honetan hezkuntzaren ideia eta helburu ezberdinak aztertuko dira, hoberena zein den esanez eta, hemendik bideratuta, ikasketa teknika hoberenak eta txarrenak aztertuko dira, gazteak lagundu ahal izateko, batzuetan ikastea oso zaila delako informazio gehiegi dagoelako eta denbora gutxi dutelako, lan, beste azterketa eta eskolaz kanpoko ekintzekin. Hau lortzeko, ikerketa hau bi zatitan banatuko da: hezkuntza eta ikasketa teknikak.

Ikerketa honen helburuak bi dira:

- Euskadin erabiltzen den hezkuntza metodoa ikustea, beste metodoekin konparatzea eta hoberena aukeratzea.
- Gaur egungo hezkuntza metodoarekin zein ikasketa teknikak diren hoberenak ikustea.

Helburu hauek betetzeko, honako hipotesi hauek proposatzen dira:

- Ikasketa tekniken hipotesia: ikasketa tekniketarik hoberena jolasen bitartez ikastea da, ikasten den bitartean ondo pasatzen delako eta era batean ikasketa, interesgarria eta kalitaztekoa delako, motibazio moduan jokatzen duelako.
- Hezkuntzaren hipotesia: gaur egungo Euskadin ezagutzen den metodoa ez da hoberena, antzinako metodoa da eta bere helburua memoriaz ikasteko gaitasuna hobetzea delako.

Ikerketaren helburuak eta hipotesiak azaldu dira. Bi gai hauek aukeratu dira, beharrezkoa den ikerketa bat delako, nerabe askok ez dutelako denborarik lan guztiak egiteko, eta pila bat ikasi behar dutelako. Ikerketa hau guztientzako onuragarria izan daiteke, agian gaur egun erabiltzen diren ikasketa teknikak eta hezkuntza modeloa ez direlako hoberenak eta hau aldatzea posiblea da, ikerketa bat ondo eginez gero. Horregatik, ikerketa honen ondorioz hezkuntza metodoa eta ikasketa teknika hoberenak aukeratzea espero da.

# Marko teorikoa

## Hezkuntza:

Euskadiko Gobernuan aurkitzen den boletinak esaten duen moduan: *“Hezkuntza sistemaren helburu nagusia da ikasle guztiei euren garapen pertsonalean laguntzea eta gizartean aktiboki eta erantzukizunez parte hartzeko tresnak eta konpetentziak ematea. Hezkuntza, beraz, funtsezkoa da pertsonaren integrazioa eta autonomia lortzeko.”* Hau da, gobernuak lortu nahi duena, hezkuntzaren bidez oinarrizko konpetentziak (eta sekundarioak) ikasteaz gain, pertsona onak izaten ikastea ere.

Haur Hezkuntza 1. zikloa	0tik 3 urtera
Haur Hezkuntza 2. zikloa	3tik 6 urtera
Lehen Hezkuntza	6tik 12 urtera
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza	12tik 16 urtera

Ikastolan derrigorrez egon behar diren umeak, urte hauek dituztenak dira: 6 urtetik 16ra bitartean eta Haur Hezkuntzako bigarren ziklotik (3 urtetik aurrera) gomendagarria da. Hortik aurrera, batxilergoa egin daiteke eta honekin unibertsitateara joan edo erdi, goi FP bat egitea, beste aukera batzuen artean.


Lanbide heziketa bat egitea aukeratzen da normalean, unibertsitatea baino errezagoa delako. 3 lanbide heziketa mota daude gaur egun, lanbide heziketa oinarrizkoa, erdiko lanbide heziketa eta altuko lanbide heziketa.

Lanbide heziketa oinarrizkoa egiteko baldintzak batzuk daude. Lehenengoa, 15 urte izatea (edo ikasturtean betetzea), eta gehienez 17 urte baino gehiago edukitzea. Baita, oinarrizko Lanbide heziketa egiteko DBHko 3. maila egina izatea (batzuetan ere 2. DBH-ko tituloak balio du) ere.

Jarraitzeko, Erdizko lanbide heziketa egiteko baldintzak apituko dira. Lehenengoa, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (edo goi maila) tituloa edukitzea.

Azkenik eta lortzeko zailena, oinarrizko Lanbide Heziketa (altuko lanbide heziketa) egitea da. Honetarako baldintza batzuk bete behar dira ere: Batxilergoa eginda izana, edozein batxilergo esperimentaleko bigarren maila gainditua izatea, goi mailako heziketa zikloetan sartzeko proba gainditu izana, goi mailako teknikari titulua, teknikari espezialista titulua edo ondorio akademikoetarako baliokidea izatea, 25 urtetik gorakoak unibertsitatean sartzeko proba gainditu izana, erdi mailako heziketa zikloetan sartzeko proba gainditu izana (gutxienez 17 urte izan behar dira), erdi mailako lanbide heziketa egin izana, eta, azkenik, unibertsitateko edozein titulazio edo baliokidea izatea (gutxienez 19 urte izan behar dira proba egiten den urtean edo 18 urte teknikari titulua dutenentzat).

Baita, unibertsitateko ikasketak egin daitezke ere, honek lanbide heziketa baino ate gehiago zabaltzen baititu. Baita, ekonomikoki txarragoa da, diru eta denbora gehiago behar delako ere. Euskal Herriko unibertsitatean, EH alumni programa erabiliz ikasten da. Bere webgunean dagoen moduan, *“Harreman pertsonalak, sozialak eta profesionalak sendotzea; sarea sortzea eta sendotzea. Erantzukizun soziala sustatzea eta unibertsitatearen eta gizartearen arteko loturak estutzea. EHUko kide izatearen harrotasuna ezagutaraztea. Enpleguarekin, ekintzailtzarekin eta prestakuntzarekin lotutako zerbitzuetarako sarbidea erraztea. Unibertsitateko campusek antolatzen dituzten kultur, jolas, kirol eta ikasketa jarduerak zabaltzen laguntzea.”* Honekin adierazten dute pertsonak eraikitzen dituztela ere.



### Ikasketa teknikak:

Harvard Unibertsitatearen esanetan, ikasketa teknika txarrenak apunteak azpimarratzea eta berriro irakurtzea, laburpenak egitea edo hitz klabeak gogoratzean eta argazkien bitartez ikastea oinarritzen diren teknika motak dira.



Lehen aipatutako tekniken artean, lehenengo hirurak besteen artean txarrenak direla dio Harvard Unibertsitatea haiek deitzen duten moduan “jakitearen ilusioaren eragina”-rengatik. Honen esanahia, pertsona batek gai bat ikasten duenean metodo hauek erabilia, ilusio bat sortzen da gaia menperatuta dagoela sinetsiz, baina justu kontrakoa gertatuz, eta azterketa batean hori azaltzeko galdetzen denean, pertsona hori oso txarto pasatu dezake, ezin duelako azaldu ondo ikasi ez duelako da.

Metodo horiek kenduta agian pentsatu daiteke ez daudela metodo asko aukeratzeko, baina egia da pila bat daudela, erabilgarriagoak direnak eta denbora igaro eta gero jakingo dela erreparatu gabe, horregatik hobetoak dira lehen aipatutakoak baino.



Metodo bat sesio artean deskantsuak egitea izan daiteke. Adibidez, Pomodoro metodoa erabiltzea baliagarria izan daiteke. Metodo honetan, ikasleak hogeita bost edo hogeita hamar minutuz ikasten du deskantzurik gabe, gero bost minutuko atzedena hartzen du eta berriro ere berdina egiten du. Horrela, burmuinak denbora nahikoa du guztia bururatzeko, deskantzatzen duelako.

Harvard-eko Unibertsitateak dioenez, klaseetan ateratako apunteak eskuz idaztean ikasterakoan hobetoa da, eta ez aparatu elektronikoak erabiliz, gaur egungo gazte askok egiten duten moduan. Ondorioz, burmuinari gehiago kostatzen zaio informazioa gordetzea, teklatuan idazterakoan, hain azkar egiten denez, ez dauka denborarik informazio guztia prozesatzeko, eta, horren ondorioz, informazioa ez da oso ondo gordetzen. Horregatik, eskuz idazterakoan, burmuinak derrigorrez idatzitako informazioa prozesatu behar du, laburbildu eta ondo idatzi ahal izateko.



Beste teknika ona mapa kontzeptualak egitea izan daiteke, honek, ikasitako informazioa laburbildu eta ordenatu egiten baitu. Ondo eginez gero, ikasketa ordu pila aurreztu daiteke, azterketan emaitza onak lortuz. Gainera, denboran zehar ez ahazten lagundu dezake. Hau eskuz egin daiteke edo eta digitalean. Horretarako, hainbat aplikazio eta webgune aurkitu daiteke interneten, Mindmanager, Xmind, Coggle, Freemind edo Goconqr esate baterako.

Mapa kontzeptualetatik abiatuta, ikasketa fitxak egin daitezke. Fitxa hauek datu konkretu batzuk, datak, zenbakiak edo hiztegiko atalak ikasteko oso erabilgarriak izan daitezke. Metodo honekin memoriazko prozesu bat egiten da, dibertigarria dena, ondo ikasten balio duena eta baita ere, motibaziozkoa dena.



### [Harvard Unibertsitateko ikerketa](#)

# Esperimentazioa

## Hezkuntza:

Ikerketa honen hezkuntza atalaren helburuak betetzeko dira.

### Materiala:

- Ikasle bati inkesta bat egiteko formularioa
- Kanpoko ikasle bati inkesta bat egiteko formularioa

### Prozedura:

1. Ikasle eta irakasleei egindako elkarrizketen puntu garrantzitsuak ikusi
2. Honen bien desberdintasunak ikusi
3. Ikasle eta kanpoko ikasleei egindako elkarrizketen puntu garrantzitsuenak ikusi
4. Honen bien desberdintasunak ikusi

## Ikasketa teknikak:

Ikerketa honen ikasketa tekniken atalaren helburuak betetzeko dira. Beste teknika batzuk frogatzeko eta hobereana aurkitzeko, lehen aipatutako teknika batzuk erabiliko dira (mapa kontzeptualak), baina baita beste bat ere. Hau mahai joko bat izango da. Hori egiteko atal honetan materiala eta prozedura azalduko da.

### Materialak:

- Ikasleei inkesta egiteko formularioa
- Kartoia
- Errotulkiak
- Boligrafoak
- Arkatza
- Borragoma
- Erregela
- Artaziak edo kuterra
- Folio txuriak

### Prozedura:

1. Arkatza eta erregelarekin nondik ebaki markatu kartoian, tableroa egiteko
2. Kartoia moztu, artaziekin edo kuterrarekin, laukizuzen bat eginez
3. Kasilak arkatzarekin marraztu, bat handiagoa eginez, txartelak hor jartzeko
4. Kasila bakoitzean zenbaki bana jarri, batetik hamarrera, bat txuriz utziz eta berriro hasiz
5. Nahi izanez gero, kasilak eta tableroa apaindu errotulkiekin, margoekin...
6. Papera arkatzarekin nondik ebaki markatu erregelarekin lagunduz, hauek txartelak izango dira
7. Artaziekin papera moztu
8. Txartela bakoitzean galderak idatzi, erantzuna txikiago idatziz
9. Txartelen atzekaldean batetik hamarrera zenbakiak idatzi
10. Hamar ikasle joku hau ikasteko erabili
11. Hamar ikasle eskemak egin ikasteko
12. Hamar ikasle buruz ikasi
13. Emaitzak taula batean apuntatu eta konparatu
14. Ikasle talde bat inkestatu

# Emaizak

## Hezkuntza atala

### Elkarrizketen emaitzak (Lauaxetako irakasleei)

#### Zer hobetuko zenukete Lauaxetatik?

Iruditzen zait, Lauaxetan egiten direla gauza asko. Azkenean, ez dakigu zein beste errealitate daude eta Lauaxetako lan egiteko modua era bat dator gaur egungo hezkuntza zailekin. Adibidez, konpententzietan oinarritutako ebaluatzeke modua. Nik ikasi nuen denboran, nota osoa aztekertan oinarritzen zen baina orain, konpententzietan ebaluatzen da. (Irakasle 1)

#### Inkestatik, (ikasleei eginda) etxerako lan gehiegi bidaltzen direla uste dutela, zein da zure iritzia?


kastolak, orain dela gutxi arte ez zuen planteamendu zehazki bat baina azkenengo urteetan, proposatzen diren etxerako lanak astero nor bidaliko zituen da, honek, konpententzia zehatz batzuk baloratzeko. Normalean, ez dira etxerako lanak bidaltzen, egin 10 ariketa biharko estilokoak; kontrol bat dago eta hau errespetatzen da. (Irakasle 1)

Nire ustez etxerako lanak, bereziki erabilgarriak dira, muga bat jartzen denean. Erabilgarriak dira benetan, denbora luzez lan egin barik egiten denean. Horrela, erritmo bat hartzeko eta eduki horrek praktikan jartzeko. Baina, hau, kontrolatu behar da. (Irakasle 2)


#### Zer planteatzen duzu zure ikasgaiatik?

Uste dut, modu ezberdinak daudela, ikasgaia era interegarri batean planteatzeko. Nire kasuan, saiatzen naiz metodologia berriak erabiltzea. Azkenean, gaur egun hainbat metodologia ezberdin ezagutzen dira. (Irakasle 2)

### Inkestaren emaitzak



Inkesta honetako erantzun gehienak, 14-16 urte arteko gazteei egindakoak dira baina txikiagoei ere egindakoak izan dira (10-13 urte)



Hemen gehienak Lauaxeta Ikastolako ikasleak zirela ikusi daiteke.

#### Zer iritzi duzu ikastolarekiko?

Oro har, hobetu beharreko gauza asko daude hor. Hona hemen adibide batzuk: lehen esan dugun bezala, etxerako lanak erabiltzea eta horiek arautzea.

### **Ikastolako zoezer aldatuko zenukeen?**

Erantzunen laburpena da gauzak ezabatu edo hobetu egin behar direla: non ikasten den, betebeharrak, ebaluazio metodoa, azterketak, etab.

### **Ikasketa teknikak atala**

Guztira bost ikasle aurkeztu ziren, bi memoriako metodoak erabili zituzten, hau da, gai guztia buruz ikasi zuten hitz berdinekin. Bestalde, beste bi pertsona mapa kontzeptualak/ mentalak erabili zituzten ikasteko. Azkenik, bostgarren pertsona, joko bat erabili zuen ikasteko; esperimendazioan egindako jokia.

Azterketa horien emaitzak, gutxi gora behera berdinak izan ziren. Memoriakoetan ateratako notak zortzi eta bederatzia koma zazpi bat izan ziren, baina denbora pasatuz ez zuten ezer gogoratu. Mapa kontzeptualak/ mentalak erabili zuen ikasle batek zortzi bat atera zuen egindako azterketan. Metodo hori erabili zuen beste pertsonak, ez daki oraindik bere emaitza, beraz bakarrik konparatu daiteke batekin. Pertsona honek, gehiago gogoratu zuen denbora igaro eta gero; ia guztia gogoratzen zuen. Ikasteko jokia erabili zuen pertsonaren emaitzak oraindik ez daki eta horregatik ezin da konparatu honekin ere ez, baina denbora igaro eta gero ia guztia gogoratzen zuen.

### **Bestalde, inkesta bat egin zen hogeita bederatzia ikasleei.**


Zein ikasketa teknika erabiltzen duzu ikasterakoan? ¿Qué técnica de estudio utilizas a la hora de estudiar?

28 respuestas




Zeintzuk izaten dira zure emaitzak azterketetan? ¿Cuáles suelen ser tus resultados en los exámenes?

29 respuestas



Azterketa egin duzun ostean, aste batzuk barru, edozer gogoratzen duzu? ¿Después de hacer el examen, tras unas semanas, sueles recordar algo?

29 respuestas



Inkestan ikusi daitekeen moduan, ikasle gehienak, hamaika ikasle, apunteak papelean berriro idazten dituzte behin eta berriz. Metodo hau erabiltzen dutenak, gehienbat, lau pertsona, bederatzia eta hamar



arteko notak lortzen dituzte, eta denbora igaro eta gero gaia gogoratzen dute. Bi pertsonak zortzi eta bederatzi arteko notak lortzen dituzte, eta gero ez dute ezer ala ia ezer gogoratzen. Pertsona bat zero eta lau arteko notak lortzen ditu eta gero ez du ezer gogoratzen. Beste bi pertsona bost eta zazpi arteko emaitzak lortzen dituzte, baina gero ez dute ezer gogoratzen. Azkenik, geratzen diren bi pertsonak zazpi eta zortzi arteko emaitzak lortzen dituzte baina gero ezer ala ia ezer ez dute gogoratzen.

Mapa mentalak/kontzeptualak erabiltzen dutenak, sei pertsona, gehiago gogoratzen dute denboran zehar. Metodo hau erabiltzen duten bi pertsonak, zortzi eta bederatzi arteko notak lortzen dituzte, eta gero gaia gogoratzen dute denbora igarotzean. Pertsona batek zero eta lau arteko emaitzak lortzen ditu eta gero ez da ezertaz gogoratzen. Beste pertsona batek bost eta zazpi arteko emaitzak lortzen ditu normalean, baina gero ez du ezer gogoratzen. Azkenik, seigarren pertsona, lau eta zortzi arteko emaitzak lortzen ditu, baina gero gauza batzuk gogoratzen ditu eta beste batzuk ez.

Beste zazpi pertsona memoriako metodoak erabiltzen dituzte ikasteko. Honetatik bi pertsona, zortzi eta hamar arteko emaitzak lortzen dituzte baina gero ez dute ezer ez gogoratzen. Gehienak, hiru pertsona, zortzi eta bederatzi arteko emaitzak lortzen dituzte, baina gero ez dira ezertaz gogoratzen. Beste pertsona batek zazpi eta zortzi arteko emaitzak lortzen ditu, eta gero gaia gogoratzen du. Azkenik, zazpigarren pertsona bederatzi eta hamar arteko emaitzak lortzen ditu, eta, gainera, gaia gogoratzen du denbora igarotzean.

Inork ez du jokurik erabiltzen ikasteko, baina pertsona bakarra erabiltzen ditu ikasketa fitxak ikasteko. Pertsona honek zazpi eta zortzi arteko emaitzak lortzen ditu, baina gero ez da ezertaz gogoratzen.

# Ondorioak

## Hezkuntza atala

Hezkuntzako espezialisten eta bertan bizi diren pertsonen iritziak eta datuak jaso ondoren, hainbat ondorio ateratzeko garaia da. Ondorio horiek ateratzeko hainbat gauza hartuko dira kontuan, adibidez, inkestaren emaitzak eta bi adituri (irakasle eta pedagogok) egindako elkarrizketak ere kontuan hartuko dira.

Hasteko, esan daiteke orain eskola publikoen eta pribatuen arteko banaketa nabaritzen dela. Horrek hainbat gauzatan du eragina. Hona hemen alde batzuk: ikasketa-lekuak, irakasteko modua... hobetu beharko liratekeen gauzak direla. Ondoren, irakasteko moduari buruz hitz egingo dugu; eskola guztiak hartuko dira kontuan. Apunteak hartzea aspergarria da eta praktikan ez dira oso erabilgarriak. Baita, irakasteko ilusiorik ez duten irakasleak egoteak eragina izan dezake ikaskuntzan ere, baina irakasteko ez da eragiten duen faktore bakarra. Hartutako erantzunetan saihestu beharko liratekeen hainbat astakeria ikusi dira. Egia da, agian gaiak ez direla interesgarrienak, baina hala ere, irakasleak saiatu egin dira, eta ikasleak ez badu ikasten oraindik asko egin beharrik dago. Egia da ekidin beharko liratekeen gauzak egiten dituela (adibidez, etxeko lanak egitea ala ez), baita zentzurik ez duten kezak ere.

Orain, hipotesiak bete diren eta helburuak bete diren ikusiko da. Hipotesia, hurrengoa zen: gaur egungo Euskadin ezagutzen den metodoa ez da hoberena, antzinako metodoa da eta bere helburua memoriaz ikasteko gaitasuna hobetzea delako. Zaila da galdera horri erantzutea, esan den bezala, hezkuntza publikoaren eta pribatuaren artean alde handia baitago. Gero, ikastetxe bakoitzak irakasteko dituen moduak ere eragiten du. Hipotesiari erantzunez, asmatzen dela esan daiteke. Irakasteko gogorik ez duten irakasleak egoteak adoregabetu egiten ditu ikasleak eta murriztu egiten du irakaskuntzaren kalitatea. Halaber, eskola gehienetan etxeko lanen kontrolik ez izatea hondamendia izan daiteke.

Horrela jarrai liteke, baina uste da horiek faktore garrantzitsuenak direla. Orain, helburuen buruz hitz egingo da. Helburuak hurrengoak ziren: Euskadin erabiltzen den hezkuntza metodoa ikustea, beste metodoekin konparatzea eta hoberena aukeratzea. Egia da, azkenean ez dela metodorik aukeratu. Izan ere, gaur egungo sisteman hobekuntzak proposatzea hobe dela pentsatu da. Izan ere, gaur egungo sistema ez da perfektua, baina proposatu ahal izan den onenetako bat izan daiteke. Hala ere, aldaketa bat gertatzea espero da: eskola publikoen eta pribatuen arteko aldea kentzea.

## Ikasketa teknikak atala

Emaitzetan oinarrituz, hainbat ondorio atera dira. Hasteko, memoriazko metodoekin eta mapa mental/kontzeptualekin gutxi gora behera emaitza berdinak lortzen direla, baina denbora igaro eta gero, memoriazko metodoak erabiliz ez da gaia gogoratzen, normalean, eta mapa kontzeptual/mentalekin, berriz, askoz gehiago gogoratzen da, nahiz eta batzuetan ez lortu. Bestalde, datu batzuk falta dira, adibidez jokoarenak eta mapa kontzeptual/mentalekin ikasten duten pertsona batzuenak, baina inkestari esker jakin daiteke mapekin lortutakoa. Apunteak papelean berriro idazten dituztenak, nahiz eta batzuk emaitza txarrak lortu, ikusi daiteke lortutako ikasketa teknikarik hoberena dela denbora laburrean, orokorrean emaitzak oso onak direlako baina denbora luzean zehar, gehienek

ez dute ezer gogoratzen, baina besteekin konparatuta, gehiago gogoratzen dute metodo hau erabilia. Jokoarenak ezin dira lortu, inkestan parte hartu duten pertsonak ez dutelako erabiltzen, eta ikasketa fitxekin gutxi gora behera berdina gertatu da, bakarrik pertsona bat erabiltzen dituelako.

Sarreran dagoen moduan, hipotesi bat proposatu zen, baita helburu bat ere. Hauek biak ez dira guztiz lortu, hipotesiak joko teknika hobereana izango zela esaten zuelako, eta honen emaitza batzuk falta dira. Horregatik, ezin da jakin hau egia badan ala ez. Gainera, marko teorikoan memoriako teknikak denbora luzean zehar txarrenak zirela zioen, eta hori bete egin da, bakarrik bi pertsona gogoratzen zutelako gaia. Bestalde, beste teknikak hobereanak izango zirela zihoen, batez ere papelean berriro idaztea eta mapa kontzeptualak/mentalak, eta hau ere bete egin da, emaitzetan ikusi daitekeen moduan, denbora laburrean eta luzean zehar gehiago gogoratzen zutelako eta emaitzak oso altuak zirelako. Helburuaren inguruan, nahiko hobeto jakin daiteke bete den ala ez, ikasketa teknika hobereana zein den ikustea zelako, eta hau lortutako emaitzekin apunteak berriro papelean idaztea da, denbora laburrean eta luzean zehar gehien gogoratzen dutenek metodo hau erabiltzen dutelako.

Honen guztiatik, datuak ez dira hain fidagarriak, bakarrik bost pertsona parte hartu dutelako esperimendazioan eta nahiz eta inkestan hogeita zortzi pertsonak parte hartu, bakarrik pertsona bat erabili ditu ikasteko fitxak, joko ez du inor erabili eta ez da jende asko inkestatu metodo bakoitzarentzako. Honengatik, hobetu daitekeena parte hartzaile kantitatea izan daiteke, datuak fidagarriak izateko jende gehiago behar delako. Horregatik, esperimendazioa hobetu daiteke, inkestak zirelako horren parte eta ez daudelako datu askorik. Azkenik, honen guztiaren ondorioz, hurrengo pausuak jende gehiagori galdetzea eta datu gehiago lortzea dira hurrengo pausuak, datu fidagarriak lortzeko eta hipotesia egiaztatzeko eta helburua lortzeko.

## Webgrafia

Ikasketa teknika hobereanak eta txarrenak:

<https://www.educaciontrespuntocero.com/formacion/mejores-tecnicas-de-estudio-para-aprendizaje-de-exito/>

<https://webdelmaestrocmf.com/portal/cuales-son-las-mejores-tecnicas-de-estudio/>

Euskadiko hezkuntza azaltzeko:

[https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/sistema\\_educativo\\_vasco/es\\_def/adjuntos/Informazioa\\_familiei\\_euskaraz.pdf](https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/sistema_educativo_vasco/es_def/adjuntos/Informazioa_familiei_euskaraz.pdf)

Formazio profesionala azaltzeko:

[https://www.descubrelafp.org/informate/que-es-la-fp/que-formacion-profesional\\_201807195b51a5c30cf21a384233e16d.html](https://www.descubrelafp.org/informate/que-es-la-fp/que-formacion-profesional_201807195b51a5c30cf21a384233e16d.html)

Unibertsitaterai buruz hitz egiteko:

<https://www.ehu.es/es/web/ehualumni/que-es-ehualumni>

Beste herrialdeko informazioa bilatzeko:

<https://www.bbc.com/mundo/noticias-internacional-506434>